



TANTA EKIMENA MARTXAN

IKASTOLAKO FAMILIA BAKOITZAK 2 TANTA TXARTEL JASOKO DITU



2020 urtean ikastolen jaiek **TANTA** egitasmoa jarri zuten abian jai bakoitzaren finantzaziorako ordura arte bideratzen ziren zozketa ezberdinak ekimen bakarrean bateratzeko helburuarekin. Horretarako Ikastolen Elkartearen ardurapean garatzen da ikastola guztion egitasmo berri hau.

Ikastolok Euskal Herriko berezko hezkuntza proiektuaren aldeko elkartasun adierazpena bilakatu nahi dugu **TANTA**, herritarrek Euskal Herriko ikastolen proiektuaren alde ekarpena eginez egikariturako dena.

Urtero, urte horretako jaien ikastola antolatzailerak izango dute elkartasun txartel hauek banatzeko ardura nagusia, baina ikastola guztiek ere parte hartuko dute ekimenean. Guztiak arituko gara herritarren elkartasuna tantaz-tanta biltzen, auzolanean.

60.000 EUROKO SARIA

TANTA ekimenean txartel batzuk jarriko dira herritarren esku. Herritarrek bost euroko ekarpena egingo diote Euskal Herriko ikastolen proiektuari, **TANTA** txartel bakoitzeko.

Bildutako elkartasunaren zati bat herritarrei itzultzeko, 60.000 euroko sariaren zozketa 2022ko ekainaren 24an egingo da notario aurrean.

FAMILIA BAKOITZAK 2 TANTA HARTUKO DITU

Gure Ikastolaren kasuan, familia bakoitzak **2 TANTA** txartel, 10 euro, hartzeko ardura izango du. Banaketarako loteriarekin erabilgaitako prozedura berbera bideratuko dugu, hau da, familia guztiek jaso beharko dituzte egokitu zaizkien **2 TANTA** txartelak eta martxoa erdialdean errezibo bidez kobrantza burutuko da.

OTSAILAREN 21ETIK AURRERA ESKURAGARRI

Otsailaren 21ean, astelehena, banaketa abiatuko dugu Ikastolako idazkaritzan.

Familiek egokitu zaizkien **2 TANTA** txartelak aparte, nahi beste eska ditzakete banatzeko eta Ikastolako langileei ere, familien neurri berdinean laguntzeko proposamena luzatuko zaie, **2 TANTA** txartel banatzeko.